

2014ko UHOLDEAK  
307/2005 Errege Dekretua  
(laguntzak eskatzeko azken eguna: 2014/08/04)

**Industria, merkataritza eta zerbitzuetako establezimenduendako laguntzak**

XEDEA (Gehienez ere **8.000€** betiere diru-laguntza hori gehi aseguru-kontzeptuarengatik ordaindu beharreko kalte-ordaina, edota bertze diru-laguntza edo laguntza publiko edo pribatu oro, ez da izanen sortu den kaltearen balioa baino handiagoa)

- 1.-Kalteak izan dituzten industriako, merkataritzako eta zerbitzuetako eraikinak eta instalazioak berreraikitzea.
- 2.- Tresnak, altzariak eta enpresa-jarduerari berariaz dagozkion bertze funtsezko elementu batzuk birjartzea.
- 3.-Izakinak eta enpresa-jarduerari berariaz dagozkion izakinak birjartzea.

**ONURADUNAK**

Industriako, merkataritzako eta zerbitzuetako **establezimenduen titularrak diren pertsona fisikoak edo juridikoak**, ondorio fiskaletarako behar bezala erregistratuak daudenak, funtzionamenduan ari direnak, eta **gehienez ere berrogeita hamar langile dituztenak**, baldin eta enpresa-jarduerari loturiko eraikinetan, instalazioetan edota ekipamendu-ondasunetan edonolako kalteak izan badituzte, betiere larrialdiko edo hondamendi-izaerako egoerak eragindakoak badira.

Ezinbesteko betebeharra izanen da establezimenduak **aseguru-polizia kontratatua izatea** eta poliza hori indarrean egotea gertaera eragileak gertatu ziren unean, eta kaltea gertatu izana aparteko arriskuen aseguruan edota aseguru-polizaren ohiko estalduran sartuta ez dagoen arrisku batengatik.

## **AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

(Jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak)

1.-Eskabide-eredua

2.- Aseguru-polizaren fotokopia konpultsatua eta indarreko primaren ordainagiria.

3.- Identitate pertsonalaren datuak, NANaren fotokopia (pertsona fisikoa) / IFZaren fotokopi konpultsatua eta lege-ordezkaritzaren ziurtagiria (pertsona juridikoa).

4.- Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren aitzineko azken kotizazio-agiriaren fotokopia konpultsatua, enpresako langileen izen zerrenda adierazita.

5.- PRE/1576/2002 2. Aginduaren eranskina

Estatuko Administrazio Orokorraren obligazioak ordaintzeko prozedura. (Eskatu kopia udalean).

**Oharra: Eskaera Gobernuaren Ordezkaritzan (Iruñean) edota Baztango Udalean erregistratu daiteke.**

**Eskaera erregistratu eta 6 hilabete igarotzen badira erantzunik gabe, eskaera ukatu dutela ulertu beharko da.**

